

Espainian gure pentsioak arriskuan

HEMEN ETA ORAIN

GURE PENTSIOAK BERMATU

Egungo egoera eta etorkizunerako aurreikuspena

2018ko apirila



www.lab.eus



AURKIBIDEA

EGUNGO EGOERA	5
PENTSIO DUINAK BERMATZEKO BOST OINARRI.....	7
MOBILIZAZIOA AREAGOTZEKO GARAIA DA	9

Gobernu espainoleko politikek arriskuan jartzen dituzte gure pentsioak Euskal Herrian, hemen eta orain, gure pentsioak bermatzea exijitzen dugu

EGUNGO EGOERA

Pentsio sistema prekarizatu berau pribatizatzeke. Botere publikoen egitekoa da pertsona helduek, erretiroa hartzen duten momentutik pentsio egokia izan dezatela, independentzia ekonomikoaz gozatu eta bizitza maila duinari eusteko. Estatuak eskubide hori babestu behar du, ahaleginetako urte luzetan adinekoek jendarteari egin dioten ekarpenaren aitortza eta elkarrekikotasunetik sortzen dena.

2008an hasitako krisi ekonomikoak eta ordutik onartutako lan-erreformek diru-sarreraren galera garrantzitsua ekarri dute, enplegu suntsiketa eta kotizatzaileen kopuruak behera egin duelako, soldatek eros-ahalmena galdu dutelako eta prekarietatearen igoera eta soldata murrizketa gogorrak izan direlako. Honi gobernuak eskainitako kontribuzion gainerko murrizketa ugari eta eskuzabalen eragina elkartu behar zaio.

Gainera, gehienezko kotizazio oinarriaren mugari eustea (2018rako ere ez dira igo) eta gobernuen enplegu politiken eragina, enpresen mesedetan egindako gizarte seguratzako kotizazioen murrizketa eta hobarrietan oinarrituak. Enpresen mesedetan egindako kotizazioen murrizketa hau, ustez kontratazioa suspertzeko dena, erabateko porrota izan da, pentsioetara bideratutako baliabide ekonomikoak xahutu direlarik. 2018an 1.530,88 miloi euro aurrekonturatu dira honetarako.

Eraitza, pentsio baxuak egungo pentsionistentzako (1.000 eurotik beherako pentsioa du %52ak) eta argia ez den etorkizuna biharko pentsionistentzat.

Aurreko asteetan albiste izan da emakumeek lan munduan jasaten duten diskriminazio egoera gizon eta emakumeen arteko soldata arrakalaren ondorioz. Baina pentsioen arloan ere badago arrakala, soldatena baino are handiagoa.

Aipa dezakegu gure lurraldeko daturik berrienak kontuan hartuta (KESek 2017an argitaratuak), EAEn 2016ean emakumeena baino %79 handiagoa zela gizonezkoen pentsioa. Nafarroan eta bertako Estatistika Institutuko datuen arabera, 2015ean emakumeena baino %70 handiagoa zen gizonezkoen erretiro-pentsioa, batz besteko.

Hau, lehenago esan dugun moduan, politika publikoen ganean kapital finantzieroak duen kontrolaren gauzapez praktikoa baino ez da, kasu honetan babes sozial eta pentsioen inguruan. Bilatzen den helburua, eredu publikoa kapitalizazio indibidualeko sistema batek ordezkatzeko da kapital finantzieroen interesen mesedetan, zeinen helburua den pentsioen sistema pribatizatzea babes soziala bere merkatu aukera berria bihurtzeko.

Estrategia da pentsioen sistema publikoak etorkizunik ez duela konbentzitzea, eta edozertarako prest daude honek etorkizunik izan ez dezan.

Faktore guzti hauen ondorioz defizitean sartu da Gizarte Segurantzaz.

Egoera honi aurre egiteko modu bi daude:

- Sistemari baliabide gehigarriak ematean pentsio duinak bermatuko dituen finantzazioari eusteko, kotizatzaileekin bakarrik izatea derrigorrezkoa izan gabe.
- Erreforma gogorak ezartzea eta erretiroa hartu dutenak doserokeraren doikuntza onartzera behartu, pentsioen zenbatekoa gogor murriztuz.

Espainiako estatuan bigarren aukeraren alde egin da, honezkero ezagunak diren emaitza injustu eta onartezinekin.

Pentsioetan egindako inbertsi publikoaren proiektzioak (BPGren %) erreformen aurretik eta ondoren:

	2010	2020	2030	2040	2050	2060
Erreformen aurreko gastuak	10,1	10,9	11,8	14,5	16,8	16,7
Erreformen ondorengo gastuak	-	11,8	11,2	11,9	12,3	11
Gastu murrizketa	-	-8	-5	-18	-27	-34

Iturria: 2012-2015 Egonkortasun Programaren eguneratzea eta Europar Batzordea Comisión Europea (The 2015 Ageing Report)

Pentsioetan egindako inbertsioak BPGren %11,8 suposatzen zuen gutxi gora-behera Espainiako estatuan, eta Europar Batzordearen aurreikuspenen arabera 2011 eta 2014an onartutako erreformek pentsioen gastuari eusten lagunduko dute epe luzera. Horrela, BPGren %11raino jaitsiko da 2060an, Espainiako estatuak erreforma horiek ekin aurretik aurreikusten zuen %16,7aren aurrean.

Azken batean, onartutako erreformekin gastu publikoa BPGaren %12aren inguruan mantentzea lortuko du Espainiako gobernuak, erretiroan daudenen kopuruak gora egin duen arren. Murrizketen gogortasunaren eraginez %34 egingo dute behera gutxi gora-behera pentsioek, adinekoak eta datozen belaunaldiekiko konpromiso soziala sakrifikatuz, pobrezian bizitzera behartuko ditugularik.

Gure pentsioak, euskal langileen pentsioak, ez ditu gero eta ahulagoa den Espainiako pentsio sistema batek bermatuko, banka handiaren zerbitzura dauden gobernuen erabaki politikoei kolapsatuta dagoena.

Kutxa Bakarra bezalako kudeaketa tresnak erabilita, eskubide oro ukatzen digute hemen eta orain Euskal Herrian gure pentsioak bermatzeko, langile eta enpresek kotizazioekin egin ahal duguna erabaki ahal izateko.

Azken asteotan milaka eta milaka pentsionistek hartu dituzte kaleak bizitza duinaren defentsan, eta orain, inoiz baino beharrezkoagoa da pentsioen inguruko eztabaida agenda politikoaren erdigunean kokatu ahal izatea. Eztabaida honetan agerian jarri beharko litzateke lan harremanen eta gizarte segurantzaren arloan dugun eskuduntzen gabezia (Lan Harremanak eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua) dela behartzen gaituena hemendik aurre egin behar izatera Madrilen erabakitako lan erreforma eta pentsioen murrizketen ondorioei.

Madriren hartutako erabakiekin harreman zuzena dute pobrezia eta bazterkeria sozialaren igoerak, langile pobreen errealitatea berriak edo pentsio baxuek.

Aldaketarako benetako politikak beharrezkoak dira egungo egoera sozio-ekonomiko eta laboralean eta horretarako, beharrezkoa da borondate politiko bikoitza. Bizi-baldintza hobek bermatzeko politika publikoak diseinatzea eta politika integralak garatu ahal izateko tresna burujabeak izatearen beharra.

PENTSIO DUINAK BERMATZEKO BOST OINARRI

1) Hilean 1.080 eurotako gutxieneko pentsioa, hemen eta orain

- Hilabetean gutxienez 1.080 eurotako izango den pentsioa eskatzea honakoan oinarritzen da. Europaren barruan gaude eta bertan, soldaten medianaren, ez batzakebestekoa, balioaren %60ak ematen digu aipaturako kopurua. Medianaren %60 da mugatzat jotzen den kopurua pobrezia arriskuan ez kokatzeko. Proposamen hau baliagarria da baita emakume pentsionisten egoeran pentsioen arrakalak sortzen duen diskriminazio egoerari erantzuteko.
- Botere publikoek bermatu behar dute orain zein etorkizunean pertsona guztiek euren pentsioa eskuratzea, eta horretarako, ulertzen dugu duina izango den gutxieneko bat zehaztu behar dela. Horregatik eskatzen dugu Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) edo Gizarteratze eta Bermatutako Errentaren (GBE) bidez Madriren erabakitako miseriazko pentsioak osagarritzea. Konpetentzien gabezia honek pobretu egiten gaitu.

2) Pentsioen eros ahalmenari eutsi, KPIren arabera eguneratzearen bidez.

- Indize honi eusteak suposatzen du pentsioen eros-ahalmena bermatzea.
- 1.000 eurotik beherako pentsioetan, 2011-2017 artean %1,8koa izan da eros-ahalmenaren galera EAEn eta %0,3koa Nafarroan.
- 1.000 eurotik gorako pentsioentzat, 2011-2017, artean, %2,9koa izan da EAEn eta %1,3koa Nafarroan.

3) Pentsioen erreformak atzera botatzea

- Exijitzen dugu indargabetu izan daitezela Madrildik iritsitako pentsio-murrizketa etengabe eta gogorak, inposizioaren, adostasun politikoaren edota CCOO eta UGT sindikatuek garatutako eztabaida sozialaren ondorio direnak.
- Etorkizuneko erreformen aurrean euskal esparrua blindatu behar dugu eta aurretik egindakoak lehengoratu, sistema publikoari balioa kendu eta berau suntsitzen dutenak.

- Toledoko Ituna ez da espazio neutrala zeinetan espero dezakegun egoera lehengoratzea, osatzen duten aditu eta gehiengo politikoak konpromiso handiagoa duelako finantza-interesekin pentsio-sistema publikoaren defentsarekin baino.

4) Gizarte Segurantzako euskal sistema

- Kontuan izanda pentsioen erreformak inposatu egin zituztela Hego Euskal Herrian, Greba Orokorrekin erantzunak izan baitziren, kontuan izanda pobretu egiten gaituztela eta kontuan izanda pentsio-sistema publikoaren gainean dauden mehatxuak, ezinbestekoa da gizarte segurantzako sistema propioa izatea kompetentzia legegile osoekin.
- Gainera, Hego Euskal Herrian dagoen korrelazioa bera, bai esparru politiko-instituzionalean bai sindikalean, gure interesen aldekoagoa da esparru estatalean baino. Honek ahalbidetuko luke euskal langileriak modu zuzen eta eraginkorragoan parte hartzea, bere interes propioen defentsan, bere lan-baldintza eta babes sozialerako funtsezkoak diren gaietan.
- Pentsio-sistemak errenten bermerako eta mundu guztia babestuko duen babes sozialerako sistema zabalago baten parte izan behar du.

5) Etorkizuneko pentsioak duinak izan daitezzen, kalitatezko enpleguak izan behar du abiapuntua

- Lan Denboraren Banaketa orokortua soldata gutxitu gabe, enplegu osora eramango gaituena eta pertsona guztiek pentsio duina izan ahal izatera, bai kotizazio bai zergen bidez.
- Laneko Denboraren Banaketa laneko eta bizitza pertsonala modu efektiboan uztartzeko, eta ehun produktiboaren berreuskalduntzea laguntzeko.
- Soldatak eta laneko egonkortasuna nabarmen hobetzea.
- Zaintza-lanen korrespontsabilitatea, aukera berdintasuna eta emakumeen enplegurako sarbide-eskubideak bermatzea, eta soldata-arrakala diskriminatzailea erauztea.
- Lanbidearteko Gutxieneko Soldata 1.200 eurotako izatea.

MOBILIZAZIOA AREAGOTZEKO GARAIA DA

Oinarri hauekin bermatuta dago gure pentsioen bermea. Diru nahikoa dago oparoagoa, eta berdinzaleagoa izango den euskal jendartea eraikitzea. Badago diru nahikoa gure pentsioak bermatzeko, bestela errenta aitortpenetan aurkitzen ez badute bila dezatela paradisu fiskaletan edo errentetatik bizi direnen poltsikoetan.

Gure pentsioen etorkizunak dituen mehatxuen gainetik mobilizatzea beste aukerarik ez dugu. Gu geu gara, hemen eta orain, gure pentsioak bermatzera goazenak.